# AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR

## BASES PARA LA CONCESIÓN DE BECAS PARA COMEDOR ESCUELA INFANTIL CURSO 2017-2018

Las prestaciones económicas para alimentación en Escuela Infantil se encuadran dentro del conjunto de "Prestaciones económicas a familias", por lo que deberán cumplir los requisitos profesionales y socioeconómicos asignados al conjunto de dichas prestaciones, sirviendo de cobertura a los siguientes objetivos:

1.- **Garantizar** el mínimo dietético de **una comida diaria** completa y equilibrada a los y las menores integradas en familias afectadas por circunstancias de problemas de índole económica y/o socio-sanitaria.

2.- **Facilitar** el desenvolvimiento laboral de aquellos **padres y madres y/o tutores o tutoras en proceso de incorporación social** con incompatibilidad de horarios entre su posible ocupación y la necesaria atención a sus hijos e hijas ofreciendo a éstas la cobertura de cuidados que, entre otras cosas, permite el comedor.

3.- Favorecer la participación en el comedor de los niños y niñas con necesidad de experimentar referencias nuevas de socialización, estimulación y relación entre iguales.

4.- La subvención estará sujeta a la partida económica presupuestada.

### 1.- REQUISITOS ESPECÍFICOS:

Las familias beneficiarias de la prestación económico-comedor de las escuelas infantiles municipales, además de cumplir los requisitos generales, deberán encontrarse en los siguientes supuestos:

1.- Exclusivamente optan a la ayuda de comedor los niños y niñas empadronadas en Berriozar y matriculadas en la escuelas infantiles municipales. Asimismo, podrán optar a la ayuda los niños y niñas empadronadas en Berriozar que al no haber obtenido plaza en la Escuela Urtxintxa, han tenido que matricularse en otra escuela infantil.

2.- Contar con unos ingresos familiares por todos los conceptos inferiores a los establecidos en el baremo económico de aplicación.

3.- Estar al corriente de cualquier tipo de obligación tributaria (u otras) de carácter municipal.

### 2.- COBERTURA DE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA

A) Las cantidades totales a subvencionar no podrán exceder del montante de la partida presupuestaria correspondiente.

B) El tanto por ciento subvencionable se fija en función de la cuota correspondiente al servicio

# BERRIOZARKO UDALA

## HAUR ESKOLAKO JANTOKIRAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2017-2018 IKASTURTEA

Haur eskolako jantokirako diru laguntzak "Familiei emateko dirulaguntzak" sailaren barnean daude, eta, hortaz, diru laguntza horiek guztiek dituzten baldintza profesionalak eta sozioekonomikoak bete behar dituzte, eta helburu hauek betetzeko balio behar dute:

1.- Izaera ekonomikoko edo/eta soziosanitarioko arazoek eragindako familietako adingabeei **egunean otordu** oso eta orekatu baten gutxieneko dietetikoa **bermatzea**.

2.- **Gizarteratzeko prozesuan dauden gurasoak edo/eta tutoreak** lanean aritzea **erraztea**, baldin eta izan dezaketen lanbideko eta seme-alabei arreta emateko ordutegiak bat ez badatozkie, seme-alaba horiei, besteak beste, jantokiak ematen dituen zaintzak eskainita.

3.- Gizarteratzeko, estimulatzeko eta berdinen arteko harremanak izateko erreferentzia berriak bizitzeko premia duten haurrek jantokian parte hartzea erraztea.

4.- Aurrekontuan sartutako diru sailaren mende egongo dira diru laguntzak.

### 1.- BERARIAZKO BALDINTZAK

Udal haur eskoletako jantokirako dirulaguntza jasotzen duten familiek, baldintza nagusiak betetzeaz gain, beste hauek ere bete beharko dituzte:

1.- Berriozarren erroldatuta dauden eta udal haur eskoletan izena emanda dauden haurrek jaso dezakete jantokirako dirulaguntza. Halaber, Urtxintxa Eskolan lekurik gabe geratzeagatik beste haur eskola batean matrikulatu behar izan diren haurrek ere jaso ahalko dute beka, Berriozarren erroldatuta badaude.

2.- Aplikatzekoa den baremo edo taula ekonomikoan ezarrita daudenak baino diru sarrera familiar txikiagoak izan beharko dituzte, kontzeptu guztiak kontuan hartuta.

3.- Ordainduta izan beharko dituzte Udalaren arloko zergak (edo bestelako ordainketak).

### 2.- DIRULAGUNTZEN ESTALDURA

A) Diru laguntzen kopuru osoak ezin izanen du gainditu dagokion aurrekontu sailaren zenbatekoa.

B) Diruz lagundu daitekeen ehunekoa ezarriko da jantokiko zerbitzuari dagokion kuotaren arabera.

C) Baremoko atal bakoitzeko puntuak batuta

de comedor.

C) La subvención que corresponda a cada familia será la resultante de las sumas de la puntuaciones de cada uno de los apartados del Baremo, regulándose en función del tanto por ciento que figura en el apartado nº 4.

**3.- BAREMO A APLICAR**

**A) Renta per cápita familiar**
De 5.500’01 € a 6.650 € : 1 punto
De 4.500’01 € a 5.500 € : 2 puntos
Igual o menor a 4.500 €: 3 puntos.

**B) Menores de edad a cargo de la familia, incluida la persona solicitante:**
2 menores: 1 punto
3 menores: 2 puntos
4 menores: 3 puntos
5 o más menores: 4 puntos.

**C) 2 o más niños y niñas matriculadas en la escuela infantil de Berriozar:** 3 puntos

**D) Minusvalía de alguna persona miembro de la unidad familiar**
De 33% a 66%: 1 punto
Más de 66%: 2 puntos

**4.- MONTANTE DE LA SUBVENCIÓN MENSUAL**

a) Unidad Familiar con 2 puntos:. 10% de la cuota de comedor que corresponda.
b) Unidad Familiar con 3 puntos:. 20% de la cuota de comedor que corresponda.
c) Unidad Familiar con 4 puntos:. 30% de la cuota de comedor que corresponda.
d) Unidad Familiar con 5 puntos:. 40% de la cuota de comedor que corresponda.
e) Unidad Familiar con 6 puntos:. 50% de la cuota de comedor que corresponda.
f) Unidad Familiar con 7 puntos:. 60% de la cuota de comedor que corresponda.
g) Unidad Familiar con 8 puntos:. 70% de la cuota de comedor que corresponda.
h) Unidad Familiar con 9 puntos:. 80% de la cuota de comedor que corresponda.
i) Unidad Familiar con 10 puntos:.100% de la cuota de comedor que corresponda.

**5.- PLAZO Y LUGAR DE SOLICITUD**

Las ayudas económicas se solicitarán por las familias interesadas en el Ayuntamiento de Berriozar.

Las solicitudes podrán realizarse entre el 4 al 15 de septiembre de 2017.

A lo largo del curso escolar se pueden solicitar, valorar y resolver ayudas a las familias que los precisaran y por el periodo que reste de curso.

**6.- RESOLUCIÓN DE SOLICITUDES Y PAGO DE LAS AYUDAS**

Recibidas las solicitudes de ayudas a comedor de las escuelas infantiles con los informes correspondientes, la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar resolverá la concesión o denegación de las ayudas.

lortuko da familia bakoitzari dagokion diru laguntza eta laugarren atalean ageri den ehunekoaren arabera egokituko.

**3.- APLIKATUKO DEN BAREMOA**

**A) Familiaren *per capita* errenta:**
5.500’01 € eta 6.650 € artean: puntu 1
4.500’01 € eta 5.500 € artean: 2 puntu
4.500 € edo gutxiago: 3 puntu

**B) Familiaren ardurapean dauden adingabeak, eskatzailea barne:**
2 adingabe: puntu 1
3 adingabe: 2 puntu
4 adingabe: 3 puntu
5 adingabe edo gehiago: 4 puntu

**C) Berriozarko Haur Eskolan 2 haur edo gehiago izena emanda:** 3 puntu

**D) Familia unitateko kideren batek elbarritasunen bat izatea:**
%33 eta %66 artean: puntu 1
%66 baino handiagoa: 2 puntu

**4.- HILEKO DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

a) 2 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %10
b) 3 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %20
c) 4 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %30
d) 5 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %40
e) 6 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %50
f) 7 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %60
g) 8 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %70
h) 9 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %80
i) 10 puntuko familia unitatea: dagokion jantokiko kuotaren %100

**5.- ESKATZEKO EPEA ETA TOKIA**

Interesa duten familiek Berriozarko Udaletxean eskatu beharko dituzte diru laguntzak.

Hain zuzen ere, 2017ko irailaren 4tik 15era egin beharko dituzte eskaerak.

Ikasturtean zehar, dirulaguntzak behar dituzten familiek eskaera egin ahalko dute gelditzen diren egunetarako, eta Udalak baloratu eta erabakiko ditu eskaera horiek.

**6.- ESKAERAK ERABAKITZEA ETA DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

Haur Eskolako jantokirako diru laguntzen eskaerak jaso ondotik, dagozkien txostenekin batera, Berriozarko Udaleko Gobernu Batzordeak dirulaguntzak ematea edo ez erabakiko du.

El pago de las ayudas se realizará mensualmente mediante el descuento en las cuotas de comedor de los niños y niñas beneficiarias.

Las ayudas económicas tendrán efecto desde la fecha en que sean aprobadas por el órgano municipal competente.

Las becas cuentan con una consignación anual de 7.000 euros. La aprobación estará condicionada a la existencia de consignación presupuestaria suficiente en el presupuesto de 2018.

Los porcentajes de ayuda definitivos se consideran máximos y dependerán de la consignación presupuestaria y de las solicitudes presentadas, estableciéndose el porcentaje definitivo de ayuda para todo el año en función de la consignación máxima de 7.000 euros

**7.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR POR LAS FAMILIAS**

a) Instancia según modelo adjunto.

b) Declaración o declaraciones de la renta de las unidades familiares en la que este integrado el alumno/a. Si alguna persona miembro de la unidad familiar no está obligada a hacer declaración de la renta, deberá presentar certificado expedido por hacienda en el que consten sus ingresos del ejercicio 2016.

c) Libro o libros de familia, en los que este integrado el alumno/a.

La documentación del punto b) y c) no será necesario presentarla en caso de haber adjuntado esta documentación a la matrícula en la Escuela infantil.

El Ayuntamiento procederá de oficio a comprobar que las personas solicitantes se encuentran empadronadas en Berriozar. Igualmente se procederá a la comprobación de los bienes que figuran a nombre de cada una de las personas miembros de la unidad familiar en el catastro municipal y estar al corriente de las obligaciones tributarias

**8.- CONTENIDO DE LA RELACIÓN JURÍDICA PERSONA BENEFICIARIA-ADMINISTRACIÓN CONCEDENTE, CONSECUENCIA DE LA SUBVENCIÓN**

a) La persona beneficiaria estará obligada a hacer uso del comedor de la escuela infantil y a acreditar tal hecho ante el Ayuntamiento de Berriozar.

b) Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención en los siguientes casos:

1.- Incumplimiento de la obligación de justificación.

2.- Obtener la subvención sin reunir las condiciones.

3.-Incumplimiento de las condiciones impuestas.

Diru laguntzak hilero ordainduko dira kopuruak haur onuradunen jantokiko kuotetatik kenduta.

Diru laguntzek eragina izanen dute udal organo eskudunak onartzen dituen egunetik aurrera.

Bekak emateko urteko diru-saila 7.000 eurokoa da. Bekak emateko baldintza izanen da 2018ko aurrekontuan diru nahikoa izatea.

Diru laguntzen behin betiko ehunekoak gehienezkotzat jotzen dira eta aurrekontuak eta eskatutako eskaerek baldintzatuko dituzte. Hortaz, urteko behin betiko diru laguntzaren ehunekoa 7.000 euroko gehienezko diru-izendapenaren araberakoa izanen da.

**7.- FAMILIEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK**

a) Honekin batera dagoen ereduaren araberako eskari orria.

b) Ikaslearen familia-unitateen errenta-aitorpena edo aitorpenak. Familia–unitateko kideren batek errenta-aitorpena egiteko beharrik ez badauka, 2016. urteko ekitaldian izandako diru-sarreren Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

c) Ikaslea agertzen den familia liburua edo liburuak.

b) eta c) puntuetako agiriak ez dira gehitu beharko aurretik aurkeztu badira Haur Eskolako matrikula egiterakoan.

Udalak, ofizioz, eskatzaileak Berriozarren erroldatuta daudela ofizioz egiaztatuko du. Horrez gain, familia unitateko kide bakoitzaren izenean udal katastroan dauden ondasunak egiaztatuko dira, baita zerga betebeharrak egunean dituztela ere.

**8.- DIRU LAGUNTZAREN ONDORIOZ ONURADUNAREN ETA ADMINISTRAZIO EMALEAREN ARTEAN SORTUTAKO HARREMAN JURIDIKOAREN EDUKIA**

a) Onuraduna behartuta egonen da Haur Eskolako jantokia erabiltzera eta egintza hori Berriozarko Udalari egiaztatzera.

b) Egokia izanen da jasotako diru kopuruak itzultzea eta berandutze interesak exijitzea, diru laguntza ordaindu den unetik, kasu hauetan:

1.- Justifikatzeko betebeharra ez bada betetzen.

2.- Diru laguntza baldintzak bete gabe jaso bada.

3.- Ezarritako baldintzak ez badira betetzen.

Ikuskatzeko edo kontrolatzeko eginkizunetan diru laguntzak oker jaso, gozatu edo erabili direla adierazten duten zantzuak sumatzen badira; ikuskatze edo kontrol hori egiteko ardura duten pertsonek erabaki ahal izanen dute fakturak, agiri

Cuando en el ejercicio de las funciones de inspección o control se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención o ayuda percibida, los agentes encargados de su realización podrán acordar la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que tales indicios se manifiestan.

**9.- INFRACCIONES Y SANCIONES.**

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones y ayudas públicas, las siguientes conductas, cuando en ellas intervenga dolo, culpa o simple negligencia:

1. La obtención de una subvención o ayuda falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido o limitado.
2. La no aplicación de las cantidades recibidas a los fines para los que la subvención fue concedida, siempre que no se haya procedido a su devolución sin previo requerimiento.
3. El incumplimiento, por razones imputables a la persona beneficiaria, de las obligaciones asumidas como consecuencia de la concesión de la subvención.
4. La falta de justificación del empleo dado a los fondos recibidos.

Serán responsables de las infracciones las personas beneficiarias que realicen las conductas tipificadas.

Las infracciones se sancionarán mediante multa hasta el triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

Asimismo, la autoridad sancionadora competente podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

a) Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas de la Administración concedente.

b) Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con la Administración concedente.

La imposición de las sanciones se efectuará mediante expediente administrativo en el que, en todo caso, se dará audiencia al interesado antes de dictarse el acuerdo correspondiente y que será tramitado conforme a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**10.-NORMATIVA REGULADORA DE LAS SUBVENCIONES.**

Los criterios de ayudas para la concesión de prestaciones económicas a familias usuarias del comedor de la escuela infantil de Berriozar deberán adecuarse a lo establecido en la materia por: la Ley Foral de la Administración Local de Navarra, la Ley

baliokideak edo ordezkoak atxikitzea, baita zantzu horiek agerian uzten dituzten eragiketekin lotutako beste edozein agiri ere.

**9.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

Diru laguntzen eta laguntza publikoen arloan arau-hauste administratibotzat jotzen dira jokaera hauek, doloa, errua edo axolagabekeria, besterik ez, izan bada:

1. Laguntza edo diru laguntzaren bat lortzea, hura emateko eskatutako baldintzak faltsututa, edo hura ematea eragotzi edo murriztuko zuten baldintzak aipatu gabe utzita.
2. Diru laguntza xede baterako eman eta horren ondorioz jasotzen diren kopuruak ez erabiltzea xede horretarako, baldin eta kopuru horiek itzuli ez badira, aurretik errekerimendurik egin gabe.
3. Onuradunak betebehar jakin batzuk hartzen ditu diru laguntza berari emateagatik; bada, hark bereganatutako betebeharrak ez betetzea, berari dagozkion arrazoiengatik.
4. Jasotako dirua zertarako erabili den ez justifikatzea.

Adierazitako jokaera horiek dituzten onuradunak izanen dira arau-hausteen erantzuleak.

Hain zuzen ere, arau-hausteak zigortuko dira isun bidez; eta isun hori izan ahal izanen da bidegabe lortutako, aplikatutako edo ez justifikatutako kopuruaren hirukoitza.

Era berean, eskumena duen agintari zigortzaileak beste zigor hauek ezartzeko erabakia hartu ahal izanen du:

a) Bost urterainoko epearen barruan, administrazio emalearen diru laguntzak jasotzeko aukera galtzea.

b) Bost urterainoko epearen barruan, administrazio emalearekin kontratuak egiteko debekua izatea.

Espediente administratiboaren bidez ezarriko dira zigorrak, eta espediente administratibo horretan, edozein kasutan, interesdunak zer esaten duen entzunen da, dagokion akordioa hartu aurretik. Bestalde, espediente administratibo horren izapideak bideratuko dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera.

**10.- DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA**

Berriozarko Haur Eskolako jantokiaren familia erabiltzaileei sari ekonomikoak emateko laguntzen irizpideek bat etorri beharko dute gai honen gainean arau hauetan ezarrita dagoenarekin: Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Herri Ogasuneko Foru Legea, eta, modu osagarrian, Aurrekontu Lege

Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra y la Ley Foral de Hacienda Pública; y de forma supletoria la Ley General Presupuestaria) y normativa específica en materia de subvenciones.

Berriozar, a 20 de julio de 2017

Orokorra; baita diru laguntzen alorreko berariazko araudietan ezarrita dagoena ere.

Berriozarren, 2017ko uztailaren 20an

El Alcalde / Alkatea

Ayuntamiento de Berriozar

Berriozarko Udala

# Solicitud de becas para el comedor de la Escuela Infantil. Curso 2017/2018

## Haur Eskolako jantokiko diru-laguntza eskaera. 2017/2018 ikasturtea

| DATOS DE LA MADRE/TUTORA | | AMA / TUTOREAREN DATUAK |
|---|---|---|
| D/Dª *jn./and.* | | |
| DNI/NIE/Pasaporte *N.A. / A.I.Z./ Pasaportea* | Domicilio. *Helbidea* | |
| Nº teléfono *Telefono zk.* | Teléfono móvil *Telefono mugikorra* | Correo electrónico *Posta elektronikoa* |
| **DATOS DEL PADRE/TUTOR** | | **AITA / TUTOREAREN DATUAK** |
| D/Dª *jn./and.* | | |
| DNI/NIE/Pasaporte *N.A. / A.I.Z./ Pasaportea* | Domicilio. *Helbidea* | |
| Nº teléfono *Telefono zk* | Teléfono móvil *Telefono mugikorra* | Correo electrónico *Posta elektronikoa* |
| **DATOS DEL NIÑO/NIÑA** | | **HAURRAREN DATUAK** |
| D/Dª *jn./and.* | | |
| DNI/NIE/Pasaporte *N.A. / A.I.Z./ Pasaportea* | Fecha de nacimiento *Jaioteguna* | |

**EXPONEN**:

Que cumplen los requisitos establecidos en la convocatoria de Becas para comedor de la Escuela Infantil. Curso 2017-2018.

**ADIERAZTEN DUGU:**

2017-2018 Ikasturtean Haur Eskolako Jantokirako dirulaguntzak emateko deialdiak ezarritako baldintzak betetzen ditugula.

**SOLICITAN**:

Que se le conceda la citada beca

**ESKATZEN DUGU:**

Aipatutako laguntza ematea.

Autorizamos expresamente al Ayuntamiento de Berriozar para que consulte los datos padronales y fiscales necesarios para comprobar que se cumplen los requisitos de la convocatoria, conforme establece la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

☐

Baimena ematen diogu Berriozarko Udalari, berariaz, deialdiak eskatutako betebeherrak betetzen ditugula egiaztatzeko beharrezko erroldа eta zerga datuak azter ditzan, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat.

Berriozar, (fecha/*data*) ________________________________

Firma madre/tutora y Nº documento
Ama/tutorearen sinadura eta agiriaren zk.

Firma padre/tutor y Nº documento
Aita/tutorearen sinadura eta agiriaren zk.

**PROTECCION DE DATOS**. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Berriozar, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Plaza Euskal Herria, 1 - 31013 BERRIOZAR).

**DATUEN BABESA.** Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Berriozarko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Berriozarko Udalera zuzenduta gauzatu ahalko duzu datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Euskal Herria plaza, 1 - 31013 BERRIOZAR).

SR ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR / BERRIOZARKO ALKATE-UDALBURUA.